



TRINPARI

ALDIZKARIA / 2026ko urtarrila / www.haurtzaroikastola.eus



Lide Martiarenaren artelana.

Aurkibidea

Agurra	_03
Gai Nagusia	_04
Berrikuntzak	_08
Langileak	_10
Senideak	_12
Urmendi	_14
Hatzak Bete Lan	_18
Argazki-albuma:	
Euskararen eguna,	
Azaroak 25, Neguko jaiak	_34
Taldea	_36
Laburrak	_38
Eskolaz Kanpokoak	_42
Oiartzo	_44

TXINPART

Hautzaro Ikastola
Elorrondo z/g - 20180 Oiartzun
T.: 943 49 16 59
hautzaro@ikastola.eus
LG: SS-129 / 2001

DISEINUA ETA MAKETAZIOA
DIXIDU Diseinu Grafikoa

Irakurle agurgarria:

Urte erdia pasa da azkenekoz lerro hauetan topo egin genuenetik.

Zer moduz dihoakizu? Espero dut 2025-2026 ikasturteari gustura ekin izana. Ikasturte erakargarria da aurtengoa ere, horrela erakusten dute behintzat " Hatzak bete lan" saileko idatzi eta irudiek.

Ikasturte hasieran, gozamenaz eta arduraz heldu genion guztiok elkarrekin *Bizikidetza egunari*. Gogotsu aritu ginen nerabe, haur eta gaztetxo, bizikidetza balioen inguruko lanketan. Aurten, gutariko bakoitzak balio berria dugu ikasturtean barrena lantzeko. Zein da zurea?

Zoro-haizea nagusi zen egun haietan, prosa-poesia lehiaketarako ipuina idazteko ideia-zaparradan aritu zineten batzuk, poesia idazteko errimak bilatzen besteak, eta gaztetxoek Gau Beltzarako gaztainak biltzen. Aurten, hori ere egin baitugu Eskuttunekoek lagunduta: danbolinean erretako gaztain-jatea.

Era berean, eta hau ere konpromiso handiz, Palestinako eta Gazako krudelkeria salatu dugu behin eta berriz. Askatasun doinua oihu bihurtu genuen, garrasi.

Gure ikastolako eremua betirako izatea nahi dugualko, aire garbia izan dezan zaindu beharko dugu. Horretarako, Talde Berdeak kutsaduraren aurka eta ingurumena zaintzeko jarraibideak eskaini dizkigu hilabetero. Ea kontuan hartzen ditugun. Bien bitartean, jakin ezazue kutsadura neurtzeko ekimenean ari direla Ekologistak Martxan elkartearekin batera, Batzar Nagusian azaldu zuten moduan.

Udazken-haizeak ez zituen hostoak soilik astindu, liburutegiko liburuak ere pasilloan barrena barreiatu zituen urri bukaeran, *Argi-hizkiak* proiektuari hasiera emanez.

Neguko oporrak ere joan berri zaizkigu, eta hego-haizerik izan ez badugu ere orduan, haize hegoak ekarritako doinu eta letra berriak ikasi eta kantatu ditugu,

Gaurtik aurrera ikasturtearen bigarren aldiari helduko diogu, beste haize batzuekin, beste doinu batzuekin, ziur aski guztiak elkarrekin abestuko eta gozatuko ditugunak.

Orain, aldikariaz gozatzen utziko zaitugu. Irakurri eta begiratu testu eta irudi bakoitza; izan ere, oraingo ale honetan bada deskubritzea nahi genukeen misterio bat: zein da sarreran bertan gorde dugun izkutuko ideia? Ea asmatzen duzun!

Zorte on eta on egin!

Plan Estrategikoa 2025- 2029

Plan Estrategikoak hurrengo urteetan jarraitu beharreko lan-ildo nagusiak ezartzeko balio digu. Haurtzaro Ikastolan proiektu askotan hartzen dugu parte, egitasmo ugari ditugu martxan eta hezkuntzaz gain, beste hainbat eremu ere kudeatzen ditugu. Hau guztia ahalik eta era ordenatuenean antolatu ahal izateko, ezinbesteko tresna bihurtzen da Plan Estrategikoa, hura izango baita jarraituko den ipar-orratza.

Haurtzaro Ikastolako hurrengo lau urteetarako Plan Estrategikoa onartu berri dugu azkeneko Batzar Nagusian: 2026-2030 aldia biltzen duen plangintza. Tresna honek 7 eremutan jartzen du begirada: Erakundearen Planteamendua, Antolakuntza Egiturak, Elkarbizitza, Tutoretza eta Orientazioa, Curriculum, Familia eta Ingurua eta Administrazioa eta Zerbitzu osagarriak.

Plan Estrategikoa eskuratu nahi izanez gero, Alexiako galeriatan topatu ahal izango du. Hala ere, labur-labur jarraian, ikastolak hurrengo lau urteetarako onartu dituen lan-ildo nagusiak aurkezten dizkizugu:

1. EREMUA: ERAKUNDEAREN PLANTEAMENDUAK

• MATRIKULAZIOA.

Datozen 4 urteetarako matrikula kopuru altuena mantentzea eta erreferentziazko herriko euskal ikastetxea izatea dugu helburu. Matrikulazio dekretuaren errebisiora arte, 2 gelako ikastola izateak langileen egonkortasunean inpaktu al bait txikiena izateko, zuhurtziaz aritu beharko dugu.

• PERTSONA EREDUA, IKASTOLAREN MISIOA (IKUSPEGIA ETA BALIOAK) GARATZEN JARRAITU.

Haurtzaro Ikastolak bere sorreratik oso argi izan du Euskal Hezkuntza sustatzea duela helburu estrategiko garrantzitsuenetarikoa bat eta bizi ditugun garaiei egokitzuz bide honetatik jarraitzea da helburua. Era berean, elkartasun sarea elikatzea eta Euskal Herriko beste herrialdeetako ikastolekin elkarlanean jarraitzea du helburu. Gainera, hezitzailea den komunitate osoarekin pertsona eredia proiektu kolektiboaren definizioan aritzea.



Tresna honek 7 eremutan jartzen du begirada: Erakundearen Planteamendua, Antolakuntza Egiturak, Elkarbizitza, Tutoretza eta Orientazioa, Curriculum, Familia eta Ingurua eta Administrazioa eta Zerbitzu osagarriak.



Hau guztia ahalik eta era ordenatuenean antolatu ahal izateko, ezinbesteko tresna bihurtzen da Plan Estrategikoa, hura izango baita jarraituko den ipar-orratza.

- **IKASTOLAKO KOMUNIKAZIOA ESTRATEGIA.**

Gaur egun ezinbesteko bilakatu da sare-sozialetan egotea eta bestelako komunikazio euskarriak (webgunea, aldizkariak, prentsa...) ere egoki lantzea. Hala ere, erabilera desorekatuaren arriskuaren aurrean, diagnostikoa egin eta komunikazio estrategia adostasunez finkatzea proposatzen da.

- **GURE HEZKUNTZA PROIEKTUAREN BILAKAERAN EGITURAREN EGONKORTASUNA.**

Gure Hezkuntza Proiektua eraginkortasunez garatzeko, ditugun lan talde eta barne-antolaketaren optimizazioari heldu behar da helburu. Asko dira garatu beharreko erronkak eta horiek guztiek lan talde prestatu, sendo eta anitza eskatzen dute.

2. EREMUA: ANTOLAKUNTZA EGITURAK

- **IKASTOLA-UDALA ELKARLANA.**
Udalarekin maila guztietako elkarlanean jarraitzea da helburu. Era berean, ikastolako eraikina Udalak behar duenerako eskaintzea, herri eraikina izatea da kooperatibaren helburua.
- **PROIEKTUAREKIKO ATXIKIMENDUA ETA LIDERGO EREDUA LANDU.**
Gure ereduarekiko hausnarketa kolektiboa egitea, hezkuntza proiektuaren eta kooperatibaren kudeaketa egokirako giza-baliabideen prestaketa eta ardura postuekiko ahalduntzea lantzea da helburua.

3. EREMUA: ELKARBIZITZA

- **BIZIKIDETZAREN LANKETA KOMUNITATE OSOAN.**
Ikastolak leku segurua izan behar du komunitateko partaide ororentzat eta, horretarako beharrezkoak diren ekimenak bultzatzea eta jarraipena egitea du helburu ildo honek.
- **BIZIKIDETZA SENDOTU.**
Partaide askok osatzen dugu Haurtzaroko hezkuntza komunitatea eta bizikidetza da oinarri garrantzitsuenetariko bat. Bizikidetza hau sendotzea da helburua. Era berean, balio hezitzaileetan oinarritutakoa izatea nahi dugu (aukera-berdintasuna, inklusiboa, errespetua, lankidetzak...) eta hau sustatzea da ildo honen helburua.
- **FORMAZIOA SUSTATZEA.**
Heziketan eragile garenon ardura da ikasleen eguneroko jarduna hobetzeko estrategiak garatu eta irakasleen esku hartze egokiak bideratzeko estrategiak lantzea. Horixe du helburu ildo honek.

4. EREMUA: TUTORETZA ETA ORIENTAZIOA

- **IKASLEEN ANIZTASUNARI ERANTZUTEA ETA ETORKIZUNEN PERTSONEN GARAPENERAKO AHOLKULARITZA.**
Ikaslearen aniztasunari erantzuteko, orientatzaile/ aholkulari eta irakasleen arteko lana koordinatzea eta familiak ikasleen heziketa ibilbidean orientatzeaz gain, ikasleak motibatu eta beraien garapenean laguntzea du ildo honek helburu.
- **FORMAZIOA SUSTATZEA.**
Hezitzaileon ardura da ikasleen eguneroko jarduna hobetzeko estrategiak garatu eta irakasleen esku hartze egokiak bideratzeko estrategiak lantzea. Horixe du helburu ildo honek.
- **TUTORETZA EKINTZA PLANA EGUNERATU.**
Ezinbesteko tresna dugu tutoretza ekintza plana, etapa bakoitzean gauzatuta dago, eta tutoretzatik gai ezberdinekiko ikasleekin egiten dugun lanketa jasotzen da bertan. Une honetan, ONKI proiektuaren baitako eguneraketa egitea du helburua ildo honek.


5. EREMUA: CURRICULUMA

- **0-18 PROIEKTUA ELKARLANEAN KOHESIONATZEN JARRAITU.**
Haurtzaroen 0-18 proiektua daukagu, 0-2 urte bitarte Oiarzungo Udal Ikastola Partzuergoan (OUIP), 3-16 urte bitarte Haurtzaro ikastolan eta 17-18 urte bitarte Oiarztu ikastolan. Hiru erakunde izanik, bakoitza bere ezaugarriekin, ezinbestekoa da proiektu osoaren kohesioa bermatzeko erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak bideratzea.
- **HEZKUNTZA PROIEKTUA GAUZATU ETA EGUNERATU.**
Haurtzaro Ikastolaren Hezkuntza Proiektua etengabeko eraldaketan dagoen dokumentu bizia da. Horregatik, aldaketak txertatu ahala, haien egokitzapenak txertatu behar dira eta ziurtatu poliki-poliki ildo horien inplementazioa gauzatzen dela. Gainera, etapa bakoitzaren ezaugarrietara eta beharretara moldatutako lanketa egitea, pedagogian aitzindari izaten jarraitzea, irakurketa estrategia garatzea, Marko orokorraren baitako metodologia berriak lantzea da ildo honen helburua.
- **LANGILEEN PRESTAKUNTZA EGUNERATUA IZAN ETA SUSTATU.**
Ikasturtero langile dozentek prestakuntza-plana egiten da, helburua langileen etengabeko prestakuntza izanik. Langileen prestakuntza-planaz gain, eguneroko jardunean, prestakuntzetatik lortutako jakintzak nola aplikatu eta lankideekin partekatu bilatzen da. Koordinazio eta hausnarketarako tarteak aurreikusi eta, plangintza egitea da helburua.

6

6. EREMUA: FAMILIA ETA INGURUA

- **HEZKUNTZA KOMUNITATE OSOAREN PARTAIDETZA ETA ELKARLANA INDARTU.**
Ildo honek, familien partaidetza sustatzen jarraitzea du helburu, kooperatiba izaera indartuz eta familiei zuzendutako ikastola izaerarekiko, gobernantza ereduarekiko, balioekiko nahiz hezkuntzarekiko guraso-eskolak antolatuz.
- **IKASTOLAREN IZAERA HERRITARRA MANTENDU.**
Herritik eta herriarentzat sortua izanik, Haurtzaro Ikastolak, Oiartzungo herriaren dinamiketan parte hartzen jarraitu behar du eta herrian eragile izaten jarraitu. Era berean, bokazio publikoa izanik, ikastolako espazioaren inguruko hausnarketa egingo du eta komeni den eskaintza herriari egin.



7

7. EREMUA: ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZUAK

- **EGONKORTASUN EKONOMIKOA EMANGO DUEN GESTIO GARDENA BURUTU.**
Ekonomikoki bideragarria izan behar du ikastolak eta honetarako aurrekontuak doituar eta gardenak izateaz gain, altxortegi osasuntsu bat edukitzea da helburua.
- **GIZA BALIABIDEEN EGONKORTASUNA BERMATZEKO LANGILEEN PROFILAK DEFINITU ETA GARAPEN PROFESIONALAREN JARRAIPENA EGIN.**
Ikastolak, bere hezkuntza proiektua aurrera eraman ahal izateko, une oro, beharrezko dituen langile profilak aztertu behar ditu kontratazio berrietan aintzat edukitzeko. Langileak ebaluatu eta prestakuntza-planak eguneratzea ere bai.
- **JANTOKIA, GARRAIOA ETA EKINTZA OSAGARRIEN JARRAIPENA.**
Gure hezkuntza proiektuaren garapenerako osagarri diren ekintzen asebetetzeak oinarri, behar diren eguneraketak eta moldaketak aztertzea helburu du ildo honek.
- **FORMAZIOA SUSTATZEA.**
Ez-dozenteen eguneroko jarduna hobetzeko estrategiak garatu, eta jantoki, ekintza osagarrietako esku hartze egokiak bideratzeko estrategiak lantzea du helburu.

Elkarriketa



PERNANDO GONZALEZ SANTA CRUZ

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Pernando izena dut eta Andoañen jaio eta hazitakoa naiz. Beti egon naiz musika tradizionalari lotua eta hainbat dantza taldetan txistulari, dultzainari, albokari eta txalapartari gisa aritu naiz, txistu klaseak urte askoan eman ditut eta Andoaingo txistu taldeko kidea naiz. 2009an Oiartzuna ezkondu eta orain ikastolako komunitateko kidea naiz.

Zer lanbide duzu?

Makina-erremintan aritzen naiz tailer mekaniko batean. Musikarekin zerikusirik ez.

Nolatan bururatu zitzaizun Gabonetako abesti bat egitea?

Hainbat gurasoren artean zabaldua dago letren egokitasunarekiko kezka, eta abestiek duten kutsu erlijiosoa edo sexista egokitzeke, letraren aldaketa proposatzen dute. Abesti horiek denon ahotan badaude ere, norbaitek eginak/sortuak dira, eta egile eskubideak tarteko, niri behintzat ez zait egokia iruditzen horrelako zerbait egitea. Inori ez zaio burutik pasatzen Txillidalekura joan eta eskulturen ertzak borobiltzea, ukituz gero inork minik ez hartzeko, ezta? Ba abestiekin berdin. Eta letren aldaketa nola egingo genuke bateratua izateko? Euskal Herri mailako lan talde bat sortuko dugu? Euskaltzaindiak?

Etxean gogoeta egin genuen eta bertatik sortu zen kantu berri bat egitearen ideia.

Zaila izan al da prozesua? Zer izan da errazena?

Ez hainbeste. Denbora gehien kosta zaiguna partituraren harmonizazioa izan da, gehienbat denbora faltarengatik. Horregatik, lagun bati, Haritzi, laguntza eskatu genion harmonizazioa egin zezan. Grabaketa asteburu oso batean egin genuen Lezoti estudioan. Errazena melodia sortzea izan zela esango nuke.

Noren artean egin duzue grabazioa? Nork parte hartu du?

Musikariak Errenteriako Herri Arte Eskolako ikasleak dira, Betzi taldekoak, tartean ikastolako bi ikasle ohi daude. Abesten berriz, ikastolako hainbat ikasle eta etxekoak aritu gara.

Denentzako egokia izango den abestia lortu duzula esango zenuke?

Generorik ez da aipatzen, erlijiorik ere ez, animalien esplotaziorik ez da bultzatzen, antikonsumista ere bada... oraindik ere izango da kexaren bat izango duenik baina saiatu naiz ahalik eta neutroen egiten.

Lehen ere egin al duzu beste abestirik?

Bai, egin izan ditut, adibidez, orain dela urte batzuk, Oiartzungo erraldoien liburua kaleratu zuten eta abesti bat egingo ote nuen eskatu zidaten eta balts bat egin nien bere bertsoekin, alabaren gelarako bertso doinu bat sortu nuen...

Eta besterik egiteko prest?

Esperientzia errepikatzeak merezi du, baina presarik gabe.



Mila esker ikastolari egin diozun opariarengatik, espero dezagun askoren gustukoa izatea eta segi dezagun gauza berriak sortzen!

GUTXIREKIN ASE


HEGO HAIZEAK HARROTU DU
LURREKO ORBELA
GAUR EDERKI BETEKO DUGU
ZINTZURRA-SABELA.

TXIMINIA PIZTU ETXEA BEROTU
BAI GIRO GOXOA GAUR AFALTZEKO
MAHAIA GAINEZKA BETE DUGU ETA
LEKURIKAN EZ DA ESERITZEKO.

HEGO HAIZEAK HARROTU DU
LURREKO ORBELA
GAUR EDERKI BETEKO DUGU
ZINTZURRA-SABELA.

HORRENBESTE TURROI,
HORRENBESTE TXANPAN
JAR DEZAGUN MODAN OHITURA ZARRA
INTXAUR SALTSA ETA KONPOTA EPELA
AZA OLIUAK ETA ZIZARRA.





Zuzendaritza talde berria

2023. ikasturtean Zuzendaritza talde berria aurkeztu zen. Sei urteko ibilbidearen ondotik, Aritz Gonzalezek zuzendari izateari utzi zion eta Kristina Boanek hartu zuen hark utzitako erreleboa. Aritz zuzendari izan zen bitartean, zuzendaritza taldea aldatuz eta indarberrituz joan zen, bi urteko iraunaldiaren ondorengo indar berriei leku eginez. Horrela, bi urteko zikloetako ikasketaburutzak antolatu izan dira.

Zuzendariarekin batera, ikasketaburuak dira kudeaketa pedagogikoaren arduradun nagusiak. Era berean, irakasleen artean lan giro ona, eraginkorra eta baikorra lortzearen sustatzaile nagusi dira, eta koordinatzaile eta orientazio departamentuarekin elkarlan zuzenean aritzen dira.

2023. urtean ibilbidea hasi zuten ikasketaburuak 2025eko uztailean bukatu zuten haien egitekoa. Gauzak horrela, HHko etapaburu lanetan aritutako Maialen Bengoetxearen ordez, Iosune Cousillas hasi da; LHn Idurre Arrastuak Garazi Aramendiri eman dio erreleboa eta DBHn, Ander Mariezkurrenak bere aldia amaituta, Patxi Lizarragak hartu du ardura.

Talde berriak, besteak beste, Plan Estrategiko berriaren exekuzioaren ardura izango du. Zortetik onena eta urte oparoak izan ditzatela!



Talde berriak, besteak beste, Plan Estrategiko berriaren exekuzioaren ardura izango du. Zortetik onena eta urte oparoak izan ditzatela!







Denon artean eta denontzako gauzatutako lorpenetan oinarritzen da komunitate baten ongizatea.



Guraso talde honek 2018tik Ikastolako hainbat ekitaldi antolatzeko ardura bere gain hartu izan du: San Tomasetan, Ihotetan, eta beste hainbatetan.

Aurtengoa izango da antolatuko duen azken San Tomas jaia. Nik, gutxi bada ere, beraiekin aritzeko aukera izan dut eta plazer bat izan da, izan duten fundamentua, umorea, giro ona, gozada bat izan da.

Zorionez, badago txanda eta erreleboa emango dion/digun guraso taldetxo berri bat.

Zorionez esaten dut, ez delako erraza halako ardurak hartuko dituen jendea aurkitzea. Gaur egun, nire proiekturako, nire bizitzarako, nire lanerako, nire arrakastarako erabiltzen ez dugun denbora guztia, badirudi ez dela inportantea, denbora galtzea dela.

Bada, oso oker gabiltzala iruditzen zait.

Zertarako balio dit nire arrakasta pertsonalak nire ingurua "xixko" eginda badago?

Denon artean eta denontzako gauzatutako lorpenetan oinarritzen da komunitate baten ongizatea.

Gizarteak, edo sistemak, edo ez dakit zerk, individualismora bultzatzen gaitu eta komunitateari garrantzia kentzen diogun bitartean kolektiboki lortutako garaipenetan atzera egiteko arrisku handia dago.

Komunitate sendoak mantendu behar ditugu atzerakada horri aurre egiteko. Eta hori, guztion erantzukizuna da.

San Tomasak, Ikastola egunak, Xanistebanetako txoznak, guztiek helburu horixe dute, elkar ezagutzea, harremantzea, saretzea, komunitatea eraikitzea.

Eta gure seme-alabei bizitzarako hezkuntza eman behar badiugu, komunitatearekiko erantzukizun horretan ere hezi behar ditugu. Gu ikusten bagaituzte aurrera pauso bat ematen, gu ikusten bagaituzte parte-hartzen, eredu bagara, transmisio hori modu natural batean egingo da.

Ez dezagun bizi parte-hartzea karga bezala, benetako aukera dela sinistu dezagun.

Eta bukatzeko, eskerrak eman nahi nizkieke hartutako denboragatik, erakutsitakoagatik eta gu guztiongatik egin duten guztiagatik. Era berean, eskertu komunitateari eskaintza egiten diozuen guztioi.

Jarrai dezagun elkarlanean!

IÑAKI UZKUDUN
(DBH 4ko GURASOA)



Neguko jaiak Urmendin

Urtea bukatzeaz
dagoenean bi jai berezi
ospatzen ditugu haur
eskolan: **San Nikolas**
eta **San Tomas**.

San Nikolas

San Nikolas bezperan auzoan abesten dugu. 2 urteko haurrak oso pozik egoten dira lehen entseguetatik hasi eta kalera abestera ateratzen garen egunera arte. Maindirea heltzeko tokia bilatu behar dute, "San Nikolas txikia" abestu maindirea astinduz eta BOTAAAA!! esan ondoren, bertara mandarina, paxintxi eta abar botatzen dizkigutenean maindirea askatu eta janaria hartzera joaten dira. A ze poza!!

Lehendabizi, haur eskolako sarreran abesten dugu eta sukaldeko leihora hurbiltzen gara maindirearekin; ondoren, jolaslekuan abesten dugu, eta bertara begira dauden geletatik ere janaria botatzen digute, horretan ertainek eta sehaskako hurrek ere parte hartzen dute, eta baita haur eskolara gerturatzen diren familiakoek ere.

Ikastolako sarreran abesten dugu eta bertako sabaira igotzen dira gure lagunak maindirera gauza goxoak botatzeko. Elordi denda aurrean, Haurtzaro Txikin eta harategi aurrean ere abesten dugu. Haurren familiakoek lagunduta egiten dugu bidea, eta asko eskertzen diegu ahalegin hori!!

Oso giro polita egoten da.

Haur eskolara itzuli ondoren, bildutakoa denen artean banatzen da, eta haur bakoitzak bere poltsatxoia eramaten du etxera, oroigarri.





“Agur eskerrik asko” abestu eta agurtzen ditugu; 24an, ahaztu gabe, gure etxeetara opariak eramateko eskatuz!!



San Tomas

San Tomas egunean, 2 urteko haurrak baserritarrez jantzita, sarreran taldeko argazkia ateratzen dute, bertan dauden Olentzero eta Mari Domingi txikiekin. Ondoren ikastolako azoka ikustera joaten gara, eta itzultzen garenean gelan ohikoa den txistorra bokata jaten dugu.

Benetako Olentzero eta Mari Domingiren etorrera ospatzen dugu sarreran, guztiok borobilean esertzen gara beraien inguruan, eta elkarrekin abesten

dugu: Horra, Horra... Olentzero eta astoa, Horra Mari Domingi... eta ondoren gure eskaeren gutuna irakurtzen dute.

Gela bakoitzetik haur ausart bat edo beste Olentzero eta Mari Domingirengana hurbiltzen da muxu edo bostekoa ematera, eta noski, beraien zakuan geletarako ekarritako oparien bila. Hori emozioa!

Haurren negarra

Haurraren negarra bere superbibentziarako ezinbesteko baliabidea da, eta horregatik dago helduok ezin jasan ahal izateko diseinatua.

Biziraupenerako tresna hori bereziki baliagarria da haurra txiki-txikia denean, eskaera horri kasu egin behar zaiolarik. Dudarik gabe, negarraren atzean dagoen arrazoia funtsezkoa da bere ezinegonari erantzuteko modua eta azkartasuna erabakitzerakoan, baina poliki-poliki berehalakotasun hori baztertzeko joan beharko genuke. Izan ere, haur txikia hasiko da autorregulaziorako estrategiak lortzen, bere eskua txupatuz, edo gure ahotsa entzuteko erne egonez, esaterako, eta pixka batean zain egotea lortuko du.

Esan gabe doa haurraren negarrak baduela eraginik hura zaintzen dugun helduengan eta urduritzen, kezkatzen, mintzen eta ernegatzen gaituela. Interesgarria litzateke, beraz, norberak aztertzea zer den jasan ezin duena, gure ezinegon hori gehiegizkoa den kasuetan. Nola bizi dugun gudan tristura, haserrea eta ongieza. Zer mugitzen zaigun barnean, eta ondorioz, zer ezin dugun ikusi gure umearengan.

Beste egoera batzuetan kasketaldia edo haurraren frustrazioa kudeatzeko zailtasunak izaten ditugu, eta egoera deserosoak saihestu nahian, arriskurik hartu gabe aritzea erabakitzen dugu, haurraren apetei eta negarrei azkar men eginez, dena erraz joan dadin; bestela ere nahiko lan izaten dugu-eta.

Umeak ez dira kristalezkoak; ez ditzagun gero eta hauskorrago bilakatu.

Egoera horiei erreferentzia eginez, negarraren instrumentalizazioaz hitz egiten du Alexander Barandiaranek. Izan ere, heldu esanguratsuak direnen jarreraren arabera, haurrak bizkor ikasten du negarraren bitartez lortu ahal izango duela berak nahi duena eta beraz, gogotik egingo du marru, adibidez, delako goxoki hori lortzeko. Frustratua dagoen haur horri kasurik egingo ez diogula esan nahi dugu horrekin? Ez horixe. Haren haserrea aintzat hartuko dugu, baina ez du negarraren bitartez goxoki hori lortuko.

Negarra ez da berez txarra, alderantziz, askotan negarrak erlaxatu egiten ditu, eta momentu jakin batzuetan deskarga emozionala egiteko modu sano eta beharrezkoa da. Hori horrela, haurrak gehiegi kontsolatuz ez diegu mesederik egiten, kasu egitea bezain garrantzitsua delako daukaten frustrazioa, haserrea edo pena adierazteko denbora ematea.



Ustekabeko putzuak

lazko ikasturtean hareatzako hondar berria ekarri ziguten, beste mota batekoa nahigabea, eta gogor-gogor eginda geratu denez, pala eta kuboekin bere horretan jolastea ezinezkoa izan da ordudanik. Ekin eta ekin, ordea, hiruzpalau zulo egin dituzte hurrek, eta euriak lagunduta handitu eta sakondu egin dira.

Ez da gaitzik onik ez dakarrenik, beraz, eta egun euritsuetan sekulako putzu-leku erakargarria bilakatu da!

HH3



HAZI HERRIAN, HEZI HERRIARENTZAT

Komunitate herrikoia da gurea, herriarekin harremanetan dagoena eta egunerokotasunean herria egin nahi duena. Oiartzungo ttikiak dira gure etorkizuna eta herriarekiko sena eta maitasuna ttiki-ttikitatik garatzeko, herritarrek aukera ahalbidetzen digutenean eurengana gerturatzten gara.

Gelatik atera eta eskura ditugun komertzio eta denda txikiek hainbat egitasmo aurrera eramaten laguntzen digute. Fruta mazedonia egin nahi dugunean hortxe ditugu Elordi, Mari Sol, Marana... San Tomas eguneko txistorrak behar baditugu Lizar harategia ere eskura dugu. Eta... nola ez, okinaren lanbidea ezagutzeko Ihurritako errota eta Garmendi okindegiko kideak beti daude guri harrera on bat egiteko prest.

Gure ikastolak herria du ardatz eta hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu gure proiektu sorta zabala aurrera ateratzen laguntzen diguten herritarrei.

Arraztalok lan ederra egiten du herrian, ez bakarrik gaixotasun mentala duten pertsonen lan munduan bere tokia aurki dezaten, baita auzolanari eta gizarteratzeari bultzada ematen ere.

Gure txikientzat ere aukera paregabea da Arraztaloko baratzetara joatea, landareen eta barazkien mundua ezagutzeko. Barazkiak landatzeko, artaburuak jasotzeko, haziak erein eta landareak landatzeko... azken batean, gure nekazaritza gertutik ezagutzeko.



HH4



ARIZMENDI ENEA



HH4ko ikasleok "Familia eta etxea" gaia lantzen aritu gara, eta Arizmendi enea etxe museoa ezagutzera joan ginen asmo horrekin. Elena Zalakain historialariak etxeko sekretu eta kontu guztiak kontatu zizkigun: haurrei deitzeko erabiltzen zuten zulotxoa, 100 urteko trizikloa eta garaiko jostailuak, gauetan txiza nola egiten zuten, etxeko kapera, gelak... Zein desberdinak diren gure etxeak garai batekoekin alderatuta!! Zain dezagun herriko ondarea!



HH5



OIARTZUN HERRIA

HHko 5. mailakoak "Oiartzun herria" gaia lantzen aritu gara. Xabier Leteren ipuinean azaltzen diren Elizaldeko txokoak ezagutzera joan ginen eta bide batez, Arizmendi enea etxeko lorategian zegoen eskulturen erakusketa ikusteko parada izan genuen. Mikel Mendizabal eta Lorentxo Garmendiaren eskutik eskulturen munduan murgildu ginen eta beraiei esker, bisitari etekin handiagoa ateratzeko aukera izan genuen.

Ondoren gure txanda iritsi zen, buztina eskuetan eta ideiak buruan genituela, geure eskulturak sortu genituen.



LH1



“BADAUZKAT NIRE ZULOTXOAN...”

Kaixo!

Gu LH1eko ikasleak gara. Ikasturte honetan etapa berria hasi dugu gure Ikastolan. Gustuko ditugun gauza asko dugu kontatzeko. Horien artean aukeratzeko hasita, idazketa sistemaren ezagutzan eta erabileran trebatzen aritu garela kontatu nahi dizuegu. Horretarako literatura testuak barneratu ditugu (entzun, memorizatu, irakurketa-imintzioak egin, dramatizatu). Adibide gisa, Alaine Agirre eta Irriamarra taldearen “Badauzkat nire zulotxoan...” obra literarioaren lanketaren berri emango dizuegu.

Gelan behin eta berriz irakaslearen ahotik entzun ondoren, gu ere kontatzera ausartu gara. Kontaketa hori, bideoz grabatu dugu eta egindako lana etxekoekin partekatu dugu.

Oso gustura geratu gara emaitzarekin eta etxekoekin ere zoriondu egin gaituzte. Gogotsu gaude horrelako beste bat egiteko!

LH2

POP ARTerara GURE PAISAIK

*Naturari begira, paisaiak ageri dira,
artelan txundigarrien neurrira...*



Ongi etorri paisaia aniztasuna duen herrira... Euskal Herrira!
A ze paisai desberdin eta ederrak ikusi ditugun!!!

Oialekun egon ginen egunpasa. Bertako pago liluragarriak
behatu eta mairubaratzaren magia sorginduta egin
genuen basotik herrirako bidea.

Ondoren, Donostiako Santa Klara uharteko ekosistema
berezi eta bakarraz gozatu genuen. Ba al zenekien,
munduan, Donostiko uhartean bakarrik dagoen sugandila
mota bat dagoela? Podarcis hispanicus sebastiani da!!

Azkenik, itsasoko paisaia utzi eta ... BASERRIRA!!!, honen
ingurua bisitatu eta ezagutera joan ginen. Baserriaren
paisaian egon daitezken animaliak eta abereak bereizteko
balio izan zigun, besteak beste.

Paisaia ezberdin hauek txundituta, konpetentzia artistiko
bidez isladatu nahi izan genuen sentitu eta bizitutakoa.

Horretarako, Pop Art mugimenduko artisten lanak
hartu genituen bidelagun: **Warhol, Yayoi Kusama, Roy
Lichtenstein eta Nikki de Saint Phalle.**

Begira eta gozatu!!!



LH3

GELAKO UNIBERTSOA



Lehenengo unitatean Unibertsoaren gaia lantzen aritu gara irakasgai guztietan. Plastikan hiru egile ezberdin landu ditugu eta zurea nola irudikatu izan duten ikusi eta behatu dugu.

Batetik, **Mirot**ekin surrealismoa lantzen aritu gara. Bestetik, **Kandinsky**ekin abstrakzioa. Azkenik, **Van Goghe**ekin postimpresionismoa landu dugu.

Autore bakoitzaren ezaugarriak kontutan izanik, gure artelanak osatu ditugu.

Ondoren NIRE UNIBERTSOA osatzen aritu gara gelaka: Nola kokatzen naiz ni espazioan? Nola ikusten dut nik espazioa?...



Nirea eta zurea
elkartuz, gelako
Unibertsoa
osatu dugu.

LH4




LITERATURA, MUNDU EDERRAGO BATEN ALDE

Irakurtzen ikasi genuen, eta ikasteko irakurtzen dugu orain. Baina ikasteko bakarrik ez; gozatzeko ere irakurtzen dugu, mundu berriak deskubritu eta gure burua hobeto ezagutzeko, inguruarekin liluratzeko. Eta gozatzeko, deskubritzeko, liluratzeko jarraitu nahi dugu aurrerantzean ere.

Irakurketarekin lotutako ordu erdiko lau saio izaten ditugu astero, eta hainbat aukera dauzkagu liburu artean galtzeko. Batetik, gelako liburutegia dugu, Ikastolako liburu eta etxetik ekarritakoz osatua; bestetik, *Juul* txokoa, 3. mailako ikasleekin partekatzen duguna; eta, azkenik, Ikastolako Liburu Txokoa, altxorrez beteta dagoena, gu bezalako artista eta filosofo txikiak ezin egokiagoa.



Irakurzaletasuna piztuta edukitzea ezinbestekoa dugu irakurtzen jarraitzeko, denak ezin baitu ulermen fitxa edo irakurketa frogatzea izan. Maite dugulako ere irakurri nahi dugu; maite dugulako, besterik gabe. Eta horretarako zuen laguntza behar dugu, irakasle eta guraso maiteak. Utziezaguzue lasai irakurtzen, irakurri ezazue zuek ere gurekin, partekatu ditzagun irakurketak, hausnarketak, lilura... eta, batez ere, gozatu dezagun, mundua ederragoa baita liburu bat eskuen artean dugun bitartean.



LH5

EUREKA ZIENTZIA MUSEOAN: LURRAREN MUGIMENDUAK ETA URTAROAK

Gure gelak Donostiako Eureka Zientzia Museorako irteera egin zuen, Lurraren errotazioa eta translazioa hobeto ulertzeko. Gai hori gelan lantzen aritu gara, eta bisita horrek aukera eman zigun ikasitakoa praktikan ikusteko.

Museoan, maketen eta esperimientuen bidez azaldu ziguten Lurrak bere ardatzaren inguruan biratzen duenean egun eta gauak sortzen direla. Halaber, Eguzkiaren inguruan egiten duen mugimenduak urtaroen aldaketak eragiten dituela ikusi genuen.

Bisitaren zatirik bereziena, ordea, planetariuma izan zen. Bertan, zerua proiektatu ziguten kupula erraldoi batean, eta izarrak, planetak eta konstelazioak oso argi ikusi ahal izan genituen. Azalpen oso argigarriak jaso genituen eta espazioaren edertasunaz goatzeko aukera izan genuen.

Esperientzia oso interesgarria eta dibertigarria izan zen. Gauzak zuzenean ikusteak asko lagundu zigun gelan landutakoa ulertzen, eta denok gustura itzuli ginen ikastolara, zientziaz gehiago ikasteko gogoz.





LAGUNTASUNA

Ikasturte honetan, Lehen Hezkuntzan urtero egin dugun bezala, HAZIAK egitasmoaren lanketan aritu gara; 6. mailan, azken gaia **laguntasuna** izan da. Hainbat tutoretza saioetan landu dugu lagun izatea zer den, lagunak zer eskaintzen dizkigun, eta lagunartean sortzen diren barne-korapiloak nola identifikatu eta kudeatu. Etxekoekin ere korapilo horiei buruz hitz egiteko aukera izan dugu, esperientziak partekatuz eta egoera horiei aurre egiteko bide anitz jorratuz.

Ikastolak bere espazioetan (gela, jolastokia, jantokia...) eta herriko guneeetan (plazan, Ugaldetxoko futbol zelaian, parkeetan...) **giro atsegin, lasai eta seguruak** sustatzea du helburu; isolamendua baztertu eta elkarbizitza sustatuko duten inguruneak, alegia. Norberaren zaintza eta ongizatea lehenesten dira eta horrek zuzenean eragiten du besteen zaintzan zein komunitatearen osasunean.

Laguntasunaren gaia **lau askebideren** bidez landu dugu: taldeka rap kanta bat sortu dugu, HH3ko sarreran horma-irudi bat egin dugu, perkusioaren bidez erritmoa eta barnea askatzeko aukera izan dugu, eta karta-jolas sortzaile baten bidez istorio berriak asmatu eta jolasean aritu gara. Saio horietan **Alain Mendizabal, Idurre Ugalde "Maitri", Odei Astibia eta Lur Korta** izan ditugu bidelagun; benetan zorte handia izan dugu! Oso esperientzia polita eta aberasgarria izan da, eskerrik asko bihotzez!

Ilusio handiz egin dugu lanketa hau, ikasle guztien gozagarri eta inguruko guztien pozgarri izateko helburuarekin. Bizitako guztia bideo batean jaso dugu, egindakoa zuekin partekatzeko asmoz.





DBH1

ZERGATIK MUGITZEN DA LURRA, BAINA IZARRAK EZ?

Bittor argazkilariak udako gau batean hondartzan egindako argazki batetik abiatuta, DBH 1eko ikasleek, unibertsori buruz gure ezagutzak zabaltzeko ikerketa-galdera egokiak egiten ikasi dugu. Galdera irekiak eta testuinguru argikoak formulatu, galderatako gaiekin erlazionaturiko multimediekin lotu eta poster digitalaren bidez komunikatu ditugu.

Unibertsoren ezagutzak sakontzeko ariketa erakargarria izan da.

DBH 1Bko Elaia Lasa Gelbentzu



https://www.canva.com/design/DAG0b_VUQ8U/KsaQH8px_6g8VSQgc7LmMA/edit

DBH2 AMAIURREN BARRENA




DBH 2. mailako curriculumak aukera eskaintzen digu gure Historiara hurbiltzeko. Zentzu honetan, Nafarroako Erresumaren defentsa ahalbideratu zutenen testigu zuzena dugu Baztango Amaiur: Noaingo gudua galdu ondoren, Amaiurren gotortu ziren Nafarroako erregearen aldeko 200 gerlari, setioari ezin eutsirik, 7.000 gizon armatuen burua zen Mirandako kondearen aurrean errenditu ziren arte, 1522ko uztailen.

Amaiurko gaztelua suntsitu egin zuten gaztelarrek. Herritarrek gaztelua berreskuratzeko herri ekimena abian jarri zuten Aranzadiren laguntzaz eta, haririk gelditzen ez zen gaztelutik, gaur egun erakusgai den gotorlekua berreraiki zen, herrian, indusketetan

aurkitu zituzten garaiko objektuak erakusten dituen museoarekin batera.

Gure DBH 2. mailako ikasleek urteroko hitzordua egiten dute bertan: taldeetan banatuz, herriko sarreran dagoen XVI. mendeko errota martxan jarri, eta momentuan txikitutako arto hirinez ikasleek egindako taloak jan ondoren, museoa eta gotorlekua bisitatzen dituzte egun osoko espedizioan. Joan aurretik, gertakizunaren testuingurua lantzen da Gizarte Zientzietako klaseetan.

Ludikotasuna historiarekin uztartuz, ziur oroimenean emango dutela Amaiur; baita egun pasa ederra ere!



DBH3

AZAROAREN 25A: GENERO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA

Aurtengo azaroaren 25a berezia izan da DBH 3ko ikasleontzat. Genero indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren lanketan pausotxo bat eman dugu aurrera. Eguna iritsi baina aste batzuk lehenago hasi ginen lanketarekin, tutoretzako eta proiektu komunitarioko ordu batzuk gai honi eskainiaz.


Lanketa horren baitan, bideo laburrak, dokumentalak eta elkarriketak ikusi ditugu eta ondoren, horiei buruzko lanketa egin dugu talde txikitan.

Azkenik, [Patxi eta Pantxika](#) bideoan oinarrituz, harremanetan gerta daitezken egoeren larritasun mailaren arabera "eskailera" irudikatu dugu. Bi mural osatu ditugu DBHko bi pasilotan jarri eta landutakoa modu ikusgarrian egunerokoan presente edukitzeko asmoz.



DBH3

OLERKI ILUSTRATUAK

Esperimentazio eta sormen ariketa moduan landu dugu olerki ilustratua Plastika eta Ikus-entzunezko Hezkuntza arloan. Bertan, argitaratu berri zen Gorka Urbizuren Diamantea edo Zilarra kantuak hartu eta lehen aldiz entzutean sortzen den sentsazioetatik abiatuaz eta letrak aztertuz olerki bat ilustratu dugu binaka. Euskal musika edo kulturaren erreferente gazteak ezagutzeaz gain, hausnartzen eta sortzen aritu gara lan honetan.



Gorka Urbizu





DBH4

MAITE ETXEANDIAREN BISITA

EUSKAL DIASPORA



DBHko 4. mailako ikasleek Maite Etxeandia, Australiar Euskal Elkarteko kidea, bisitan izan genuen urriaren 10ean. Etxeandiaren bisitak aukera paregabea eskaini zigun *"The 8th Province"* unitatearen baitan euskal diasporaren fenomenoak gertutik ulertzeko, kasu honetan Australiako euskal komunitate aktiboaren esperientziaren bidez.

XX. mendearen hasieran, mundu zabalera abiatu zen euskal emigrazioa. Askok lan eta bizimodu duinago baten bila utzi zuten Euskal Herria. Gehienak Ameriketara joan baziren ere, zenbait lagunek Australia aukeratu zuten euren bizitza berria hasteko.

Garai hartan, Australiak langileak behar zituen hainbat sektoretan, eta euskaldunak bereziki ezagunak izan ziren azukre industriako lanetan. Landetan, azukre kanabera mozten, garraiatzen eta prozesatzen aritu ziren; lan gogorra zen, fisikoki nekagarria eta sarritan baldintza zailak zituen. Hala ere, euskaldunek zeukaten lan egiteko gaitasuna zela eta, konfiantza irabazi zuten tokiko komunitateetan.

Nahiz eta milaka kilometrotara bizi, euskal kultura eta hizkuntza mantentzea lehentasun izan zuten. Euskal etxeak sortu zituzten, dantza eta musika taldeak antolatu, festak ospatu eta euskaraz egiteko guneak sortu. Horrela, nortasunari eutsi zioten eta belaunaldi belaunaldi transmititu zuten.

Maite Etxeandiaren historia egoera horren barruan kokatzen da. Australian jaio eta 10 urte arte han bizi izan zen. Etxean euskaraz egiten zuten, baina eskolan ingelesa zuen eguneroko hizkuntza. 1991n Euskal Herrira itzuli zirenean, euskaraz hitz egiten bazekien ere, ez zekien ez irakurtzen ez idazten, eta beraz, alfabetatu egin behar izan zuen.

Australiako sustraiak, ordea, ez ditu galdu: han geratu ziren senide eta lagunekin harremanetan jarraitzen du, eta horri esker ingelesari ere eutsi dio.



Maitek ekarri zigun mezua argia izan zen: "Euskaldun izatea ez da soilik non bizi zaren; hizkuntza eta kultura zurekin eramatea da, munduko edozein lekutan."



Argazki-albuma



EUSKARAREN EGUNA



AZAROAK 25





NEGUKO JAIK



Talde Berdea: etorkizuna eraikitzen

Ikasleak martxan: ingurumenaren defentsan eta zientzia ezagutza sendotzen



Ikastolako LHko 4. mailatik hasi eta DBHko ikasleak ere, serio dabilta gure ingurunearen egoera eta horrekiko ditugun hainbat balio eta jokabide aztertzen. Azken ikasturteetan, Haurtzaro ikastolan ikaslegoaren parte-hartzea eta ekintzailtza bultzatu eta sendotzen aritu izanak bere fruituak eman ditu jada. Horrela, ikasleen **Ekoordezkarien Taldea, (Talde Berdea), IRAES Taldea** eta tutoretza saioetan brigadak sortu ditugu.

- **Ikasle ekoordezkarien Taldea (Talde Berdea):** Ikastolak urtero lantzen duen Eskola Agenda 30 proiektua aurrera eramateko, LHko 4. mailan eta DBH etapako gela bakoitzean ekoordezkari izendatu ditugun ikasle bolondresak Ekoordezkarien Taldea osatu dute eta Agenda 30eko koordinatzailearekin hilabetero biltzen dira, ekintzak eta Hilabeteko Keinuak bultzatzeko.

Aipatutako ekoordezkari bolondres batzuek [Ekologistak Martxan Taldeko kideekin elkarlanean aritu dira aurtengo udazkenean.](#)

Duela urte batzuetatik hona, Sagarrak Ekologista Taldeak/Ekologistak Martxan talde ekologistak herritarrentzako zientzia kanpainak egiten ditu, airearen kalitatea neurtzeko eta ikastetxeen ingurunean NO₂a detektatzeko.

Proiektu horren arduradunak aurtengo ikasturtearen hasieran gurekin harremanetan jarri ziren eta Haurtzaro ikastolako DBHko Talde Berdeko ikasleek parte hartzea erabaki zuten. Azaroaren 5ean, ikastolako hiru eremu ezberdinetan dugun nitrogeno dioxidoa neurtzeko gailuak jarri eta azaroaren 26an hiru laginak jaso zituzten. Laginak Londresera bidaliko dituzte, barruko iragazkiek jasotako informazioa kudeatzeko.

Honako hau Ingurumen diagnostiko bat baino gehiago, hezkuntza prozesu kolektibo eta eraldatzaile bat da, bertan pentsamendu kritikoa, talde lana eta ingurumen osasunarekiko konpromisoa sustatzen baita txiki-txikitik.

- **IRAES Taldea:** Jasagarriak ote garen jakiteko, ikastetxeko ikasleek [IRAES taldeak](#) sortzeko aukera dute. Aurten, DBHko 3. mailako ikasle batzuek TXARA basoaren inguruan herrian sortu den hausnarketa prozesuan gu ere murgiltzeko asmoz, IRAES programan parte hartzea erabaki eta lanari heldu diogu.
- **Tutoretzako Brigadak:** Gotti Betti jolasleku berriaren zaintza bideratu eta haren garbiketaz jabetzeko asmoz, astelehenero, goizeko tutoretza saioan, gela jakin bati dagokio erronda egitea, antolatuta ditugun garbiketa taldeen arabera.

Hautzaro Ikastolako IRAES taldea



DBH-3.mailako Eneko, Aimar, Amets, Oinatz, Ander, Aner, Iñaki eta Aimar

Oiartzun herriko Ingurumen Taldeak **Txara basoaren** egoerarekiko duen kezka dela eta, Hautzaro ikastolan Aitziber Sarobe biologoaren hitzaldia eta laguntzarekin hausnarketa prozesua abiatu du.

Basoa egunerokoan erabiltzeko dugun moduak (*paseoak, txakurrak, ziklistak, zaborra...*) **oreka ekologikoan eragin dezake**. Hautzaro Ikastolako **IRAES taldeko** ikasleok hausnarketa-prozesuan honela parte hartu nahi dugu:

1. **Ikerketa bat** egingo dugu Txararen egoera ezagutzeko.
2. **Ondorio ekologiko eta sozialak** aztertuko ditugu ikuspegi ekosozialetik.
3. Eta amaieran, herritarrei zein udalari **proposamenak** egingo dizkiogu.

Txara zaintzea guztion ardura da: Guk ere parte izan nahi dugu!

Bestalde, DBHko 4. mailako hainbat ikaslek zientzia ezagutza sendotzeko jakin-mina pizten duten bi egitasmo interesgarritan parte hartu dute:

- **Nobelekin solasean programan:** Aurten ere, DIPCEk antolatzen duen Topaketen XV. edizioan Hautzaro ikastolako DBHko 4. mailako 4 ikaslek (Maren Herrera, Irati Suarez, Aitzuri Rebollo eta June Somoano) parte hartu dute, Donostiako Eureka! Zientzia Museoa.




Pedro Miguel Etxeniketik gidatutako ekitaldi horretan DNA-nanoteknologiaren eta biologia zelularren arteko interfasean aitzindari den Yamuna Krishnan

(The University of Chicago), Jean-Marie Lehn (Université de Strasbourg), Kimikako Nobel sariduna eta kimika supramolekularraren aita, eta Jack W. Szostak (The University of Chicago), Fisiologiako eta Medikuntzako Nobel sariduna izan dira.

Elkitaldia DIPCEk antolatzen du, eta Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren, Kutxa Fundazioaren eta Telefónica enpresaren babesa du.

- **Jakin-Mina programan:** JAKIN-MINAK gazteen garapen intelektuala eta pertsonala du helburu, goi mailako profesionalen hitzaldiz osaturiko diziplina anitzeko programaren bitartez. Egitasmoak gazteen jakintza eremua zabaldu nahi du, eta haien jakin-mina piztu, ezezaguna bilatzera anima daitezen bultzatuz. JAKIN-MINA jardueraren hamabigarren edizioa antolatu du Jakiunde Akademiak EHUren, Deustuko Unibertsitatearen, Mondragon Unibertsitatearen, San Telmo Museoaren, Euskadiko Filmategiaren, Polymaten, Bilboko Arte Ederren Museoaren eta Artium Museoaren lankidetzarekin, eta Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren babesarekin. Aurten, Aitana Rincon, Intza Mitxelena eta Mireia Segarra ari dira parte hartzen.

Oiartzungo XXXVIII. Xabier Lete Prosa eta Poesia Lehiaketa 2025





PROSA

MAILA

LH3

1. SAILA

SARIA	Zulo luzeak	Berenjena	Aner Herrera Arbide
SARIA	Izar	Elur-maluta	Maddi Leunda Moreno
AIPAMEN BEREZIA	Aupa Palestinako Haurrak	Maio txiki	Ur Irazusta Ostolaza

LH4

2. SAILA

SARIA	Galdu ziren txakurrak agertu dira	Jazima	Zihara Astarloza Etxeberria
SARIA	Tipula geruzak	Tipulatxo	Malen Pires Arrastua
AIPAMEN BEREZIA	Liburuan sartuta	Unax	Ekhi Manterola Salaberria

LH5-6

3. SAILA

SARIA	Azoka eguna	Diplodokus	Unax Sarriegi Madariaga
SARIA	Arratoien inbasioa!	Pogacar	Auritz Azurmendi Zapirain
AIPAMEN BEREZIA	Orri txuriarekin itsututa	Txuri	Noa Zabalegi Alberro

DBH1-2

4. SAILA

SARIA	Errudun	Barri	Teo Barriola Pikabea
-------	---------	-------	----------------------

DBH3-4

5. SAILA

SARIA	Begira	Dini	Intza Mitxelena Mendizabal
SARIA	Bizipenak altxor	Altxor	Aiora Zaldua Elizetxea

16-18

6. SAILA

SARIA	Kaiolan harrapatuta	Txorixua	Ilargi Ziaurritz Olaziregi
SARIA	Agur esateko beti da goizegi	Kataxulo	Kattalin Arabolaza Palomo
AIPAMEN BEREZIA	40 minutuz	Iñurri	Manex Elgeta Tolosa

POESIA

MAILA

LH5-6

3. SAILA

SARIA	Han eta hemen	Monalisarena	Jare Astarloza Etxeberria
-------	---------------	--------------	---------------------------

DBH1-2

4. SAILA

SARIA	Bizitza	Izar	Kattin Garay Mendiboure
SARIA	Zurekin	Ama	Malen Oiarbide Gurrutxaga
AIPAMEN BEREZIA	Gaza	Ane	Ibintza Lopez Azurmendi

DBH3-4

5. SAILA

SARIA	Itxurak	Josu	Aitzuri Rebollo Zubillaga
AIPAMEN BEREZIA	Ezin egin aurrera	Argia	Mireia Sagarra Martin

16-18

6. SAILA

SARIA	Ahazten dudala ahaztu	Kataxulo	Kattalin Arabolaza Palomo
SARIA	Zure falta dut	Denbora	Maddi Garmendia Irastorza
AIPAMEN BEREZIA	Lanbroa	EAT	Ekhi Arizmendi Telletxea



Talde Berdekoak, Batzar Nagusian

2025eko abenduaren 18an Talde berdeko hainbat ikaslek parte hartu zuten Haurtzaro Ikastolako Batzar Nagusian. Lehenengo ebaluazioan **Matematika eta Euskara** arloetan landutakoak bizitzako egoera erreal bilakatu zituzten. Ez zen nolanahiko erronka izan, hain eremu formalean landutakoaren erakusketa egitea eta hain bikain defendatzea.



Zorionak egindako lanagatik eta eskerrak Haurtzaro Ikastolako Kontseilu Errektorearen izenean!





Oiartzo Ikastolaren Eguberriko Topaketa

Iazko ikasturtean
batxilergoa bukatu
zuten 117 ikasleei,
ekitaldi xumea

Oiartzo batxilergo ikastolaren 2025eko Eguberriko Topaketa egin zen abenduaren 23an, asteartean arratsaldean, Orereta-Errenteriako Niessen Kulturgunean. Ikasleak, haien familiak, irakasleak, Orereta eta Haurtzaro Ikastoletako ordezkariak, eta udalekoak izan ziren bertan.

Ikasleak beraiek aritu ziren ekitaldiaren aurkezle eta gidari lanetan. Oiartzo Ikastolako zuzendari eta lehendakariari eman zieten hitza lehenik. Olatz Mitxelenak (zuzendaria) eta Javier Bagues (lehendakaria) iaz ikasketak bukatu zituzten ikasleei zorionak eta eskerrak eman, etorriko direnei ongietorria egin, irakasle eta langile taldea eskertu eta Ikastolaren etorkizuneko erronkak aipatu zituzten.



Aipamen bereziak izan ziren **Txema Marin** irakasle eta **Maidar Gezala** lehendakariarentzat; lehenak iazko ikasturtearen amaieran hartu baitzuen erretiroa eta bigarrenak, 2024a amaitzearekin batera, utzi baitzuen Oiartzoko lehendakaritza.

Ohiturari jarraiki, ikasleen ikuskizunak eta hitzartzeak ere izan ziren ekitaldian. Ikasleek "beren" irakasleei egindako sari-banaketa izan zen aurtengo berritasun nabarmena. Diploma akademikoen banaketa, taldeko argazki, auresku eta elkarrekin berriketan aritzeko osteko mokaduekin amaitu zen Oiartzo Ikastolaren 2025eko Eguberriko Topaketa.

Aisialdian ere jarduera fisikoa



Dantza modernoa, euskal dantza, atletismoa eta eskola kirola ditugu eskolaz kanpoko ekintzetan jarduera fisikoa bermatzen duten ekintzak.

Osasun fisiko eta mentalerako izugarrizko garrantzia du jarduera fisikoak eta, horrekin batera, elikadura egokiak, noski. Txikitatik kirol ohitura osasuntsuak barneratuz gero, osasuntsuago haziko gara eta heldutasun aktiboago bat izateko aukerak handituko zaizkigu.

Gorputza mugitu behar da eta heltzen joan ahala, kirol jarduera egiteko bakoitzak bere ohiturak barneratzen baditu ere, nahiz eta askotan kosta (alferkeria, denbora falta edo bestelako mila arrazoi), haur eta gazte garaian taldean aritzeak asko laguntzen du.

Laguntzeaz gain, onuragarria da, bata besteari mugimenduak eta teknikak erakusteko eta elkarrekin ikasteko aukera eskaintzen baitu.

Hautzaro Atletismo taldea, talde ederra da. Giro paregabea aritzen dira atletismoak eskaintzen dituen modalitate anitzetan. Asteburuetan ere izaten dituzte saioak eta adibide bikaina dugu Ander Garaiarrena. Hautzaro ikastolako atletismo taldean aritua da eta izugarrizko emaitza onak lortzen ari da bere kirol ibilbidean. ZORIONAK, ANDER!!!

Dantza modernoa eta euskal dantza taldeak ere hortxe aritzen dira gogotsu, astero-astero, eta kultur ekintzak suertatzen direnean, gure herriko ohitura, abesti, dantzak eta abar ikasi eta erakustaldi bikainak ematen dituzte. Bide batez, ez dugu ahaztu behar, dantzan aritzeak ere izugarrizko ahalegin fisikoa eskatzen duela.

Ikasturtero bezala, EUSKARAREKIN lotutako edozein festatan ikastolako dantza estilo guztietako dantzariak plazaratzen dira, festa ederrak eginez.

BEJONDEIZUELA DANTZARI GUZTIEI!

Eskola kirola ere badugu ikastolako aisialdi eskaintzan. Aste barruan bi saio eta larunbat goizetan beste saio bat.

Aukera bikaina da lagun artean multikirolean aritzeko. Zergatik multikirola, ordea? Eskola kirola proiektuak LHko 3. mailatik LHko 6. mailara bitarte adinari egokitutako kirol modalitate ezberdinak probatu eta praktikan jartzeko aukera eskaintzen duelako.

Eskaintza zabala daukagu LHko 3. eta 4. mailetan; colpbola, atletismoa, herri kirolak, saskibaloia, erritmo saioa, irristaketa, kirol egokitua, eskubaloia, natur jarduerak, hockeya, jolas kooperatiboak, ur jolasak, futbola, orientazioa, mahai tenisa...

LHko 5. eta 6. mailetan: piraguismoa, eskubaloia, euskal pilota, arrauna, atletismoa, futbola, mahai

tenisa, irristaketa, erraketa jolasak, saskibaloia, errugbia, eskalada, mendi lasterketa, btt, colpbola, triatloia, konkis...

Kirol hauek Oarsoaldeko eremu desberdinetan egiten dira eta horietara joan ahal izateko, ahal den kasu gehienetan, joan-etorri jasanagarriak egiten ditugu. Horiek bizikletaz bidegorritik barrena egiten dira entrenatzaileekin, hezitzaileekin eta gurasoekin batera.

Ekintza guztietan bezala, multikirolean ere balio asko transmititzen ahalegintzen gara, esate baterako: konfiantza, joko garbia, konpromisoa, esfortzua, taldearekiko ardura, elkarbizitza, parekidetasuna, lankidetzatza, enpatia, hezkidetzatza, errespetua, talde lana...

Primerako lana egiten dute hezitzaileek, balio guzti horietan eta bakoitzak bere esparruan haur eta gazteak hezten.

Mila esker hezitzaile guztiei!!!



Aisialdian beraz, ez dago aitzakiarik Haurtzaro ikastolan jarduera fisikoa lagunartean, ongi pasatuz eta EUSKARAZ egiteko.



Ikasturte hasierako txangoa



Erriberako Ikastolak eta Errigora ekimena ezagutzera

Oiertzon batxilergoaren lehen mailari ekiten dieten gazteek ikasturte hasierako bi eguneko txangoa egiten dute, Orereta eta Haurtzaro Ikastoletatik zein beste ikastetxe batzuetatik hara heltzen direnek elkar ezagutzeko aukera bikaina baita. Aurten lehenengoz, Nafarroako Erriberara joan dira, gure baloreekin bat egiten duten hainbat zutabe ezagutu eta uztartzeko aukera aprobetxatuz: Ikastolez, euskaraz eta euskal kulturaz, auzolanaz eta Errigoraz ari gara.

Pasa diren irailaren 25ak eta 26ak traza eta kutsu hori hartu zuten Oiertzoko 1. mailako gazteentzako: Euskal Herriko beste egoera batzuk ezagutzearena, auzolanarena, konplizitatearena eta inplikazioarena.

Goizean goizik Oarsoaldean autobusa hartuta, Tafallako Garcés de los Fallos eta Tuterako Argia Ikastoletara joan ziren Oiertzoko ikasleak bi taldetan banatuta. Erriberako bi Ikastola horietako ikasle txikienei gazteek beraiek aurrez antolatutako zientzia- eta hizkuntza-tailerrak eskaini zizkieten.



Pasa diren irailaren 25ak eta 26ak traza eta kutsu hori hartu zuten Oiartzoko 1. mailako gazteentzako: Euskal Herriko beste egoera batzuk ezagutzearena, auzolanarena, konplizitatearena eta inplikazioarena.



Adin ezberdinetako ikasleen arteko harremanez gain, Nafarroan euskarak pairatzen duen zonifikazioaren eragina eta Euskal Herriko inguru hartako Ikastolen egoera zaurgarria bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten oiartzoarren. Jakina denez, Ikastolok, muga administratiboez gaindi, Euskal Herriko hezkuntza eragilea gara, eta hala jokatzearaz gain, elkarri laguntzea eta elkarlanean aritzea dira gure xede nagusietako bi. Ikasleak ere horren jakitun eginez eta horretan inplikatur.

Bazkaltzen goizak emandakoaz hausnartuz, Errigora ezagutzeko txanda arratsaldean. Ekimen horretan parte hartzen duen Mendigorriako kooperatiba batean izan ziren gazteak. Kooperatiba bera ezagutzeaz gain (haren funtzionamendua, kudeaketa, zailtasunak, satisfazioak...), haren bitartez Errigora proiektua sakonago ezagutzeko parada ere izan zuten: saskiak eskatzeak duen garrantzia eta saskiek, Erriberako produktuez gain, barruan ekartzen dituzten istorioak, hain justu.






Beireko aterpetxera afaltzera eta lotara. Eta biharamunean, Irunberriko arroila ezagutzera oinez pasieran zein uretatik rafting eginez. Eta aho zapore ederrarekin, etxera buelta.

Maite ditugu maite gure bazterrak, herriak, herrikideak, egitasmoak, ekimenak... lanbroak ezkututzen dizkigunean, zer ezkututzen duen ez digunean ikusten uzten; orduan hasten baikara ezkutukoa... gure barruan bizten diren bazter miresgarriak ikusten. Halaxe zioen Laboak. Eta halaxe da, ezta? Lanbroarekin, eta are gehiago, lanbrorik gabe maite ditugu gure bazterrak, herriak, herrikideak, egitasmoak, ekimenak.





IKASTOLAK



Haur Hezkuntza
hizan



Haurtzaro Ikastola
bizitzarako hezkuntza

Lehen Hezkuntza
hagin



DBH
ikas



Oiartzo
Batxilergoa
jakin



Bagatoz
lanera
heztera
jolastera
eraldatzera



IKASTOLAK

Hautzaro Ikastola

BAZATOZ?

www.hautzaroikastola.eus